

4. **Programen diseinuan ebaluazioa barne hartzea. Hala, ebaluazio sistematikoa, prozesuarena zein eraginarena, proiektuen eta programen erabilera eta eraginkortasuna egiaztatzeko nahitaezko praktika izan dadin.**
5. **Tartean adingabeak dauden kasuetarako, polizi esku-hartzearen protokolo bateratua eta espezifikoa ezartzea.**

B. PREBENTZIO SELEKTIBOKO JARDUEREI BURUZ

Txostenak agerian jarri duen moduan eta ohi bezala, azken urteotan burutu diren esku-hartze gehienak biztanleentzako edo adingabeentzako bideratu dira. Eta, segur aski, hala izaten jarraitu behar da.

Ordea, berehalako erronka prebentzioaren garapenean dagoela uste da. Aipatu prebentzioa, modu espezifikoan, zenbait faktoregatik bereziki zaugarriak diren pertsona talde jakinei zuzenduta dago. Eta, bertan, behin eta berriro aipatzen da aurrera egiteko beharra. Eta esku-hartze mota hori gehien behar duten biztanleriaren sektoreen edo egoeren artean, gutxienez, honako gomendio hauetan jasotzen direnak aipatu dira:

6. **Egoera ahulean dauden biztanleen urritasun psiko-sozialak eta sozio-educatiboak gainditzeko prebentzio selektiboko programak garatzea.**
7. **Kontsumo problematikoak eta justiziarekin arazoak dituzten adingabeentzako programak garatzea. Aipatu arazoak askotan kontsumo horien ondoriozkoak dira.**
8. **Buru osasuneko arazoak dituzten adingabeentzako programak garatzea.**
9. **Bereziki ahulak edo zaugarriak diren sektoreentzako –bakarrik dauden adingabe atzeritarrak adibidez– programak garatzea, gure artean oso zabaldua ez dauden baina ondorio larriak dituzten kontsumoak –besteak beste, disolbatzaileak edo inhalatzaileak kontsumitzea– saihets edo aintzat har daitezen.**
10. **Arazo eta zailtasun sozio-ekonomiko eta kultural asko dauden gunetan, alegia, adingabeak eskubide guztiak barne hartzen dituen bizimoduan sar daitezzen zaila den eta bazterkeria egoeran geratzeko arrisku larriaren egon daitezkeen gunetan, programa integralak garatzea. Hori guztia drogak maiztasun handiarekin kontsumitzeagatik, delituak egiteagatik...**
11. **Kontsumo problematikoak edota jokabide arazoak dituzten adingabe edo gazteentzako prebentzioaren berriazko arretaren baliabideak bermatzea, egun dauden prebentzio selektiboko programak egokiak ez badira. Egungo baliabideak nahikoak ez badira, mota horretako baliabide berriak sortzea.**